

2025

EKAINAK 15.



etengabe **arabaeuskaraz'25**

Euskara eta elkarlana oinarri hartuta Arabako hiriburuan

Ekainaren 15 honetan ospatuko da Gasteizen 2025eko Araba Euskaraz. Herrialdeko zortzi ikastolen artean egindako elkarlanari esker, jaia Arabako hiriburura itzuliko da, baina aurten kokaleku berri batera. Helburua, Bastida Ikastolari sostengua ematea eta Arabako Errioxan euskararen erabilera sustatzea.

ERREPORTAJEA

Ainhua AROSTEGI | GASTEIZ

Aurtengo edizioak leku aldaketa dakarkigu: Olarizuko zelaiak erabilgarri ez daudenez, Armentia Ikastolaren inguruan, Mendi-zorrotzan eta Prado Parkean ospatuko da jaia. Erabaki arduratsua izan da, tentuz eta soseguz hartua, segurtasuna eta antolakuntzaren kalitatea beste edozeren gainetik bermatu nahi izanda. Gune berriek aukera berriak eskainiko dituzte, jakina, baina ardura-dunek tinko eutsiko diote ospakizunaren jatorrizko izaera herritar, parte-hartzaile eta euskaldunari.

Egitarauari begira, askotari-ko ikuskizun, tailer eta jolas eta jokoak prestatu dituzte antolatzaileek, adin guztiei zuzendutakoak, baina batez ere haur, nerabe eta gaztetxoentzat. Dena den, familia giroa da azpimarratu nahi dutena, familian ospatzeko egitaraua baita igandekoa. Halere, lagunartean gozatzeko moduko menua ere prestatu dute.

Goizeko hamarretan abiatuko da Araba Euskaraz jaia, Armentia Ikastolan. Hortik aurrera, euskaraz eta euskal kulturaz gozatzeko hamaika aukera izango ditu Araba Euskarazera etortzen denak.

Bastida Ikastolak jasoko du aurtengo Araba Euskarazeko diru-bilketaren onura. Ikastola honek egundoko garrantzia izan du Arabako Errioxan gertatu den euskararen biziberritzean, eta bere jarduera behar-beharrezkoa da oraindik, lortutako guztiak atzera egin ez dezan. Araba Euskaraz, beraz, ez da ekitaldi isolatua, proiektu pedagogiko baten funtsezko osagarri bat baizik. Euskara erabilera-eremu berrietara eramateko eta gure hizkuntzaren normalizazioaren aldeko tresna baliotsua da ospakizun hau.

AUZOLANAREN EMAITZA

Ikastolen arteko elkarlana ezinbestekoa izan da gauzak behar bezala irten daitezen. Sinergia horrek, esperientzien eta baliabideen partekatzean oinarrituta, komunitatea biziki indartu du, etorkizunean mantenduko diren lokarri berriak sortuz. Au-

Aurten Olarizuko zelaiak erabilgarri ez dauden arren, jaia ez du Arabako hiriburua utziko. Iñigo URIZ | FOKU

GUNE BERRIEK AUKERA BERRIAK ESKAINIKO DITUZTE, BAINA ARDURADUNEK TINKO EUTSIKO DIOTE OSPAKIZUNAREN JATORRIZKO IZAERA HERRITAR, PARTE-HARTZAILE ETA EUSKALDUNARI.



zolan horren emaitza da aurtengo Araba Euskaraz.

2025eko leku-aldaketak desafio handi baten aurrean jarri ditu antolatzaileak, baina erronka zail bat gainditzeko modurik onena batera jardutea dela erakutsi dute, ospakizunaren jarraipena eta arrakasta bermatuz.

Gasteizko kokapen berriek hurbiltasuna eta irisgarritasuna eskainiko dizkiete hara inguratzen diren guztiei. Aldi berean, jasangarritasuna bultzatu nahirik, garraio publikoa, bizikletak eta edalontzi berrerabilgarriak izango dira parte hartzaile ororen eskura.

Azken finean, Araba Euskaraz ez da leku jakin bateko kontu soila, herri baten konpromisoaren adierazle sendoa baizik, auzolanaren eta etorki-

zunaren aldeko jarrera eta apustu irmoa. Guneak tokiz aldatu badira ere, ohiko helburu berak ditu ospakizunak: euskarari arnagune erraldoi bat eskaintzea eta euskal komunitatea protagonista bilakatzea.

KONPROMISOA

2025eko leloa, "Etenik gabe", euskararen transmisioaren adierazlea da. Bi hitz horiek, sinpleak eta konplikatuak aldi berean, belaunaldien arteko lotura islatzen dute. Leloa Mikel Urdangarinek eta Kirmen Uribek sortu duten "Arbasoen su txikia" kantuarekin uztartzen da. Abesti honek euskararen historia kolektiboa dakarkigu gogora, eta gure hizkuntzaren eta gure kulturaren sua bizirik mantentzeko engaiamendua irudikatzen du.

Lizarralde soinua

TXALAPARTA S.L.

**AUDIO PROFESIONALA
ETA MEGAFONIA.**

www.lizarraldesoinua-txalaparta.eus
945 226 977 · GASTEIZ

bai
euskarari
ziurtagiria | Zerbitzua eta
lana euskaraz

AMETS

WWW.AMETSSL.COM

DEI IEZAGUZU: 94 672 24 53

**DOITASUNEZKO
MEKANIZATUAK**

SGS **SGS** **SGS**

in **@**

Euskara ez da, inola ere, iraganeko aztarna bat. Etorkizuneko sua dugu, eskutik eskura pasatzen dena, gizaldiz gizaldi, gurasoengandik seme-alabengana. “Etenik gabe”, beraz, ez da lelo hutsa, promesa eta konpromiso bat baizik: «Euskarak bizirik iraungo du, sasi guztien gainetik eta laino guztien azpitik, euskaldunok hala nahi dugulako».

URTE OSOA ETA ARABA OSOA Araba Euskaraz ez da egun bateko jai hutsa, urte osoan zehar garatzen den egitasmo anbiziotsu bat baizik. Orain dela lau urte herrialdeko zortzi ikastolek elkarrekin antolatzen hasi zirenetik erabaki zuten Araba Euskaraz urte osoko prozesua izango zela; ekaineko jaiak amaiera ematen dion urtea, hain zuzen ere. Horrekin batera, Araba Euskaraz urtero Araba osora hedatuko zutela esan zuten. Eta aurten ere hala izan da.

Udazkenetik udaberrira bitartean Arabako ahalik eta txoko gehienetara iritsi dira, ekimen desberdinen bitartez. Iazko abenduan, Gazte Talent Arabako musika talde eta barkarlari gazteen lehiaketarekin ekin zioten urteari. Urtarrilean GO!azen 11ko lagunaren emanaldi bikoitzaz gozatu ahal izan zen Gasteizen; otsailean, Euskal Pilota Topaketa antolatu zuten Bastidan; eta martxoan zehar hiru astez Gasteizko Olabe frontoian emakumezkoen zein gizonezkoen zesta-punta liga ofizialeko Araba Euskaraz Jai Alai Master Series txapelketa puntuagarria jokatu zen.

Martxoari bukaera gogoangarria emateko, Mikel Urdangarinek Kirmen Uribek idatzitako letrarekin konposatutako kanta aurkeztu zuten Gasteiz-

BASTIDA IKASTOLA, 45 URTE ETENGABE ETA ETENIK GABE

Bastida Ikastolak 45 urte bete ditu aurten eta 2025eko Araba Euskaraz izango da ospakizun horren protagonista nagusia.

1979an oso euskara gutxi aditzen zen Bastidan, hizkuntza arrotza zen, nolabait. Orduko zenbait ameslarik eta hainbat euskaltzalek egindako lan izugarriari esker sortu zen ikastola. Hasieran bederatzik ikasle baino ez zituen. Egun, ordea, 130 baino gehiago dira, Bastidakoak zein inguruko herrietakoak, baita Euskal Herrikanpo bizi diren euskal familia batzuetatik etortzen direnak ere.

Mugaldeko herri batean kokaturik egoteak izaera berezia ematen dio ikastolari. Euskara eta euskal kultura hauspotzeko leku ezinbestekoa da Arabako Errioxan. Neguan euskararen erabilera nahiko eskasa bada ere, ikastola da euskararen aterpe eta arnasgune Bastidan. Udan, aldiz, euskara gehiago entzuten da herriko kaleetan, Euskal Herriko beste herrietatik datozen biztanleei esker.

Bastida Ikastolak proiektu berritzaileak jarri ditu martxan azken urteotan, digitalizazioaren aldeko apustu nabarmena eginik. Ihes-gela formatuan eta bestelako baliabide digitalen bitartez, ikasleen hizkuntza maila eta herri ezagutza lantzen dira modu aktibo eta ludikoan.



Bastida ikastolako ikasle talde bat, 2012ko argazkian. Raúl BOGAJO | FOKU

Ikastola herrigintzatik sortu zen, eta bertako komunitateak, beti erakutsi duen konpromisoari irmo eutsiz, denboran zehar sendotu eta zaindu du euskararen aldeko bere jarrera. Oraindik ere etengabe aldatzen eta

egokitzen jarraitzen du, gogotsu, belaunaldi berriek euskaraz bizi, pentsa, maite eta amets egiteko aukera izan dezaten. Hori dela eta, guztion laguntza eta babesa behar ditu, euskara herri bizi batean sustatzeko.

ko Europa jauregiko agertoki-ko kontzertuan. Apirilean, Euskal Herriko periferian dauden ikastoletako eta aurtengo jaien antolatzaile diren ikastoletako 14-16 urte bitarteko gazteen arteko trukea izan zuten

egun batez Bastidan, “Non eta muga” ekimenaren barruan. Apirilean ere, Arabako ikastolen ekimen bateratu gisa, martxak antolatu zituzten Bastida, Argantzoren eta Amurrioren. Bukatzeko, maiatz erdialdean

Bastidan ospatu dute Etengabe Jaia, ekainaren 15eko jaiegun handiaren atariko gisa.

Urte oparoa izan da, beraz, aurtengoa. Eta hau guztia aurrera ateratzeko babes ekonomikoa eman duten erakunde eta enpresei esker.

nari eta auzolanari esker izan da, bai eta beste elkarte eta erakunde batzuekin egindako lanari esker ere, eta horiek aurrera ateratzeko babes ekonomikoa eman duten erakunde eta enpresei esker.

Euskararen nazioa gara.

ehbildu

Araba
Euskaraz
2025
–
Bastida

Etengabe



KETXU BEDIALAUNETA Bastida Ikastolako zuzendaria

Ketxu Bedialauneta da Bastida ikastolako zuzendaria. Euskararen erronkez, ikastolen arteko elkarlanaz eta Araba Euskaraz jaiak komunitatearentzat duen garrantziaz hitz egin dugu berarekin. Bere iritziz, mugaldeko herri batean egoteak nortasun berezia eman dio ikastolari eta 45 urte hauetan erakutsi du periferian ere posible dela euskararen sua piztuta mantentzea.

«Bastida Ikastolak piztuta mantendu du euskararen sua periferian ere»

A.A. | GASTEIZ

“Etenik gabe” lelopean, Araba Euskaraz festaren suak txinpartaka jarriko du Gasteiz, euskararen aldeko konpromisoa eta auzolana oinarri hartuta. Bastida Ikastolak bere gain hartu du antolakuntzaren ardura 45 urte betetzen dituen urte berezi honetan.

Zein izan da Bastida Ikastolaren ibilbidea eta zein unetan zaudete gaur egun?

Gure ikastola 1979an sortu zen. Garai hartan euskararen presentzia oso eskasa zen Arabako Errioxan. Bederatzi haurrek osatu zuten estreinako taldea. Gutxi iruditu arren, egia bilakatutako ametsa izan zen guretzat, zerbait zoragarria. Denborak aurrera egin ahala, komunitatearen konpromisoari esker eta hezkuntza euskaldunaren aldeko apustu tinkoari eutsiz, ikasle kopurua izugarri handitu da, eta aurten 130 ikasletik gora dauzkagu: Bastidakoak, Errioxako beste hainbat herritakoak, eta Euskal Herriatik kanpo bizi diren familia euskaldunen seme-alabak.

Mugaldeko herri batean egoteak nortasun berezia eman digu eta, dagoeneko, Bastida Ikastola euskararentzako arnagune estrategikoa bihurtu da eskualde osoan. Ez da soilik ikasle kopuruaren hazkundea. Euskaraz bizitzeko gure eguneroko borroka



ARGAZKIAK: RAUL BOGAJO | FOKU

ere azpimarratzekoa da. 45. urteurrena ospatzen ari garen urte borobil honetan, Araba Euskaraz bezalako ekitaldi erraldoi bat antolatzea seku-

lako erronka eta egundoko oparia izan da guretzat.

Zeintzuk dira euskararen erronka nagusiak Arabako

Errioxa bezalako eremu batean, batez ere arnaguneetatik kanpo?

Euskararen erabilera zailagoa da arnaguneetatik kanpo. Ho-

ri egia da, baina zailtasun horrek ez gaitu geldiarazi. Bastida Ikastolak urte luzeetan erakutsi du periferian ere posible dela euskararen sua piztuta mantentzea. Euskara hizkuntza bat baino zerbait gehiago da guretzat. Komunitate baten izaera, pentsatzeko eta sentitzeko modua, herri baten bihotza eta arima. Gure ikasleek eta familiek euren arnagune propioak sortu dituzte, egunerokoan euskaraz bizitzeko espazioak eraikiz eskolatik haratago ere.

Erronka nagusia erabileran datza. Ez da nahikoa hizkuntza ezagutzea; erabilera aktiboa behar da; horixe da gakoa. Horregatik, ikasgelatik kanpoko jardueretan ere euskararen presentzia bermatzen dugu, euskarazko aisialdia, kultura eta harremanak sustatuz.

Zein garrantzia du Araba Euskaraz bezalako ekitaldi batek Bastida Ikastolarentzat?

Gure ikastola oso txikia da, baliabide mugatuak dauzkagu, eta horrela zaila da proiektu berritzaileak behar bezala aurrera eraman ahal izatea. Araba Euskaraz aukera aparta dugu horretarako. Geure asmoek ekiteko laguntza eta bultzada emango digu. Diru-iturri horri esker, kalitatezko hezkuntza bermatzeaz gain, gure eguneroko dinamika indartuko dugu: irakasleen prestakuntza, material didaktiko berriak, azpiegiturako hobekuntzak...

**DASTATU
BETIKO
ESNEAREN
ZAPOREA**



EUSKAL HERRIA
esnea

www.euskalherriaesnea.com



Baina jaialdiaren garrantzia ez da ekonomikoa soilik. Araba Euskarazek gure komunitatea ikusarazteko eta gure lana balioan jartzeko aukera paregabea eskaintzen digu. Euskara eta ikastolak erdigunean jartzen dituen jai erraldoi honetan parte hartzea, berez, aitorza bat da gure langile, familia eta ikasleentzat. Ohere bat, nolabait ere.

Zein izango da Araba Euskaraz biltutako diruaren erabilera nagusia?

Bildutako dirua hainbat helburutarako erabiliko dugu. Lehenik eta behin, irakaskuntza-proiektu berritzaileetan sakontzeko: digitalizazioa, gamifikazioa, ikaskuntza kooperatiboa eta bestelako metodologia berriak indartuko ditugu. Bigarren, azpiegiturak hobetzeko erabiliko dugu ere: espazio irisgarriagoak, erosoagoak eta euskara erabiltzeko egokiagoak sortu nahi ditugu, ikasleen ongizatea bermatuz.

Gainera, herri ezagutza eta euskararen transmisioa indartzeko egitasmo bereziak jarri nahi ditugu martxan, gurasoak eta komunitate osoa barne hartzen duten proiektuak, euskararen sua belaunaldiz belaunaldi transmititzen jarrai dezagun. Etenik ez dezala izan.

Nola prestatu duzue Araba Euskaraz jaialdia eta nolakoa izan da ikastolen arteko lan-kidetza?

Ardura nagusia Bastida Ikastolak bere gain hartu badu ere, zortzi ikastolen artean egin dugu elkarlana, zentzuz eta gogoz, ikastolen arteko sarearen indarra indartuz. Hileroko bileretan elkar entzun, proposatu eta adostu dugu dena. Harreman estua sortu da gure artean, elkarri ikasi eta laguntzeko giro interesgarrian, etorkizunean jarraipena izango duena.

Zein erronka eta zein aukera ekarri ditu aurten kokalekua aldatzeak?

Araba Euskaraz Olarizuko zelaietan ospatu da urteetan. Aurten, ordea, ezinezkoa izan da festa ohiko lekuan egitea eta horrek erronka handiak ekarri dizkigu planifikazio aldetik. Azkenean, Armentia Ikastolaren inguruan, Mendizorrotzan eta Prado Parkean banatuko dugu jaia.

Ez da batere erraza izan, hasieran batez ere, baina segurtasuna, irisgarritasuna eta egituraketa kontuan harturik, eremu berri hauek gauzak ganoraz egiteko aukera ederra eskaintzen ziguten. Gune ba-



koitzak izaera propioa dauka eta horrek mota askotako esperientziaz gozatzeko parada emango dio jendeari: herritarra, familiarra, kirolzalea, parte-hartzailea...

Zer azpimarratuko zenuke aurtengo Araba Euskarazeko egitarauaz?

Aurtengo egitaraua osoa, zabal eta anitza da, publiko mota guztientzat egokitua. Hiru gune nagusi izango ditugu: Armentia Ikastolaren inguruan Lautada Gunea (familiarra eta hurrei zuzendua),

«ERRONKA NAGUSIA ERABILERAN DATZA. HORREGATIK, IKASGELATIK KANPOKO JARDUERETAN ERE EUSKARAREN PRESENTZIA BERMATZEN DUGU».

Mendizorrotzan Mendia Gunea (kirola eta gazteentzako lehiak) eta Prado Parkean Erreka Gunea (guztiontzako jarduera ludiko eta parte-hartzaileak). Hara hurbiltzen diren guzti-guztiei euskaraz bizitzeko eta gozatzeko aukera izan dezaten.

“Etenik gabe” da aurtengo leloa. Zer esanahi du?

Ez da esaldi hutsa. Hitz horiek belaunaldien arteko transmisioa adierazten dute: sua eskutik eskura pasatzen den moduan, euskara ere belaunaldiz

belaunaldi bizirik mantendu behar dugu.

Leloa, nolabait ere, Bastida Ikastolaren lanaren isla da: zenbat urte daramatzagun lanean, etengabe aurrera eginez, etenik gabe gure hizkuntzaren eta gure kulturaren aldeko ahaleginetan... Eta leloak ez du soilik gure jarduna iradokitzen: ikastola guztien lana eta konpromisoa aipatzen ditu, sare oso baten indarra gogora ekarritz.

Gainera, “Etenik gabe” leloa Mikel Urdangarinen eta Kirmen Uriberen “Arbasoen su txikia” kantarekin lotu dugu, belaunaldien arteko suaren irudia euskararen transmisioaren ikur bilkatuz.

Zer mezu helarazi nahi diozue Araba Euskarazera gerturatu den jendeari?

Eskerrik asko, bihotzez. Araba Euskaraz festa huts bat baino gehiago da: herri baten konpromisoaren eta auzolanaren emaitza eta erakusgarria dugu. Euskara biziberritzeko guztion ekarpena beharrezkoa da. Gure hizkuntzaren iraupena ez dago bermatuta: erabilera da giltza, eta erabilera horren aldeko jai kolektibo bat da Araba Euskaraz.

Gonbidatuta zaudete guztiok, familian, lagunekin, elkarrekin edo bakarka, baina beti auzolanean. Eta gogoratu: euskara ez da iraganeko aztarna, etorkizunerako sua baizik. Eskutik eskura, etenik gabe, pasa behar duena.

ITURRIETA SAGARDOTEGIA
Reservas en: www.iturrieta.eus

Bº Arraga, 2 / Aramaio
t. 685 72 15 93
info@iturrieta.eus • www.iturrieta.eus

ENEK

Kuartango SAGARDOTEGIA

Zuhatsu-Kuartango 21
t. 699 747 730 • 945 362 683

TREBIÑU sagardotegia

Askartza (Trebinu)
www.trebinu.com
945 24 48 52 - 657 73 65 99

TXOTX EGIN!!

Arabako sagardotegiak

Servicio de autobús

Hiru gune, kalejira eta jarduera ezberdinen bidez elkarri lotuta

Araba Euskaraz hiru gune nagusitan banatuko da aurtten. Gune bakoitzak bere ekintza propioak izango ditu eta haien arteko lotura kalejira eta jarduera ezberdinen bidez egingo da.

A.A. | GASTEIZ

Goizeko hamarretan abiatuko da Araba Euskaraz jaia, Armentia Ikastolan. Hortik aurrera euskaraz eta euskal kulturaz gozatzeko hamaika aukera izango ditu Araba Euskarazera etortzen denak.

Lautada gunea, Armentia ikastola

Gune hau festaren abiapuntua eta familientzako gune nagusia izango da. Haur eta gazte-txoentzako tailer, jolas eta ikuskizun ugari antolatuko dituzte bertan, gure hizkuntza eta gure kultura modu dinamiko eta parte-hartzailean bizitzeko. Familiek eta haurrek giro lasai eta seguruan euskaraz egiteko eta jaiaz disfrutatzeko parada izango dute. Goizeko 10.00etan inaugurazio ekitaldia izango da, eta kalejirak berehala hasiko dira.

Mendia gunea, Mendizorroztza parkea

Gune honetan jokoak, lehiaketak eta kirol ekintzak izango dira jaun eta jabe. Lehen Hezkuntzako ikasleek erronka eta proba desberdinak egingo dituzte. Giro lasaia izango da, baina parte-hartzea, lehia eta

dibertsioa ez dira inola ere faltako. DBHko ikasleek jarduera ezberdinak burutuko dituzte, hiru guneetan, euskararen erabilera sustatzeko. Helburua gure hizkuntza kirolaren eta jolasaren bidez hauspotzea da, eta parte-hartzaileek euskaraz modu naturalean jarduteko aukera bikaina izango dute.

Erreka gunea, Prado parkea
Jolasak eta jarduera ludikoak izango dira nagusi inguru honetan. Tailerrak eta bestelako proposamenak ere egongo dira. Gune hau publiko zabala-arentzat prestatua dago eta familiek eta lagun taldeek euren beharrak asetzeko parada izango dute. Eguna familia-giroan pasatu nahi dutenentzat diseinaturik dago egitaraua, eta jarduerak izango dira haur, nerabe, gazte zein helduentzat.

Azkenik, antolatzaileek hainbat gomendio eta informazio erabilgarri zabaldu dituzte igande honetako jaia ahalik eta erosoena eta jasangarriena izan dadin.

Horrela, Araba Euskaraz benetako festa jasangarria izan dadin, garraio publikoa erabiltzeko gomendioa zabaldu dute antolatzaileek. Gasteizko autobus geltokia Lasarteko

**ARABA EUSKARAZ
BENETAKO FESTA
EROSOA ETA
JASANGARRIA IZAN
DADIN, GARRAIO
PUBLIKOA
ERABILTZEKO
GOMENDIOA
ZABALDU DUTE
ANTOLATZAILEEK
ETA GASTEIZTIK
BERTATIK
DATOZENEI OINEZ
EDO BIZIKLETAK
ETORTZEKO
AHOLKATU DIETE.**



1. lautada gunea
ARMENTIA IKASTOLA

11:00 BERTXILIKAREKIN BERTSOTAN!
Bertxilika Bertso Eskola

12:30 ETENGABE TXOUA!
Arabako Ikastoletako Ikasleak

14:00 GORA MUSIKA!

15:00 ARABA EUSKARAZ DANTZA PLAZAN

17:00 GOIAZEN Karaokea

Tailerrak eta jolasak:
11:00 - 14:00 BERRIAREN TXOKOA
Asier Kidam-en gertuko magia

11:00 - 16:00 ARGITXOREN TXOKOA
Argitxorekin jolasean

Egun osoan zehar:
EROSKI ELIKADURA TAILERRA, MAKUSI EGUNA eta **IHOBE KLIMA AZOKA**

araba álava
foru alderdiak diputación foral

MAKUSI

EROSKI
zurekin

berria

2. mendia gunea
MENDIZORROTZA

11:00 DANTZA ETENGABEA!
Euskal dantzen topaketa

12:00 HERRI KIROLAK
Vital Fundazioaren eskutik

12:30 PLUK Gazte Talent

14:00 ZILIBITO RECORDS

15:30 IZAKI GARDENAK

17:00 AKERBELTZ

Tailerrak eta jolasak:
11:00 - 14:00 HAURREN BASOA
11:00 - 15:00 KAIKU BASERRI TXOKOA
Zatoz behia jeztera eta tailerrean gozatu!

Vital
FUNDACIÓN FUNDACIÓN

K

Kaiku

LumaGorri

BAQUE

3. erreka gunea
PRADO PARKEA

12:00 TRIKOMA

13:30 MARTE LASARTE

15:00 MODUS OPERANDI

16:30 ROSAMARI

18:00 MONKEY TXIMINO
Watxin Matxine

Tailerrak eta jolasak:
11:00 - 14:00 HAZTEN ETA JOLASTEN
Araba Euskaraz murala eta pultserak

Egun osoan zehar:
EUSKALTEL KUKAÑA BIZIKLETAK eta **PUZGARRIAK**

VITORIA GASTEIZ
green capital

LABORAL

euskaltel

Coca-Cola

Portalea kalean egongo da eta kanpotik datozen autobusentzat, berriz, aparkaleku handia prestatu dute Maite Zuñiga kalean. Autoz datozenek Erromesen Ibilbidean aparkatu ahal izango dute.

Gasteiztik bertatik datozen, oinez edo bizikletaz etor-

tzeko aholkua egin diete eta aparkalekuak izango dituzte Mendizorroztzan. Parte-hartzaileei edalontzi berrerabilgarriak etxetik ekartzea edo txosnetan eskuratzea eskatzen zaie, ingurumenean eragindako kalteak ahalik eta txikiak izan daitezen.



HYUNDAI | Servicio oficial para el Alto Nervión
Nerbioi Altuan Zerbitzu ofiziala

Eska, S.L.


Industrialdea, 4-1. LAUDIO Araba
Tf. 94 672 81 01

Aurrera bali!

araba euskaraz **25** ekainak 15




etengabe



El Prado



Mendizorrotza



**Armentia
Ikastola**

Vital

FUNDACIÓN · FUNDAZIOA

www.fundacionvital.eus

Euskararekin, sortu ginenetik

EROSI
+ BAZKIDE
TOKI

EROSKI

etengabe
araba
euskaraz'25

Ekainak 15
ARMENTIA
MENDIZORROTZA
EL PRADO



Hemengoa
izatea ona da

 **EROSKI**
zurekin